



PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

Kontratua: 2030erako Berrikuntza Plana Garatzeko Zerbitzua (2025 – 2026)

Zuzendariordetza kudeatzailea: Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntza Zuzendariordetza

AURKIBIDEA

1.	KONTRATUAREN XEDEA	2
2.	HASIERAKO BALDINTZAK	2
3.	EGIN BEHAR DIREN LANEN DESKRIBAPENA	3
4.	DOKUMENTAZIOAREN KUDEAKETA	11
5.	SEGIMENDU-BILERAK	11
6.	ENPRESA ADJUDIKAZIODUNEN LANGILEAK	11
7.	ESKaintza Teknikoen Edukia	11
8.	ERANSKINAK	12



1. KONTRATUAREN XEDEA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, aurrerantzean Partzuergoak, 2030erako Berrikuntza Plana idatzi eta onartu zuen (aurrerantzean, Plana), 2022ko martxoan, eta erakundean ezarri du data horretatik gaur egunera arte. Ezarpen-prozesu horretan sartzen dira, besteak beste, berrikuntza sistematizatzeko, berrikuntza irekia sustatzeko eta berrikuntzaren kultura bultzatzeko ekintzak.

Lehen ezarpen-prozesu baten ondoren, Plana 2023an eta 2024an garatu zen, 2023ko Berrikuntza Plana (2023-2024) garatzeko zerbitzuaren bidez.

Kontratu honen xedea plana garatzeko beharrezkoak diren ekintzekin jarraitzea da, 2030erako Berrikuntza Plana garatzeko zerbitzuaren bidez (2025-2026).

2. HASIERAKO BALDINTZAK

Planak hiru dimentsio ditu: Estrategikoa, taktikoa eta operatiboa.

Dimentsio estrategikoan, berrikuntzaren helburua dago: «Partzuergoaren berrikuntza prozesuak hobetzen eta herritarrei kalitate goreneko zerbitzua modu eraginkor eta jasangarrian ematen laguntzen duen tresna da. Helburu hori lortzeko, bere sektorean eta ingurunean berrikuntza bultzatzen duen eragile gisa kokatzen da».

Dimentsio estrategiko horren barruan berrikuntza-helburuak ere badaude:

- Prozesuak optimizatzea: eraginkortasun handiena bilatzea Partzuergoaren kudeaketa- eta ustiapen-prozesuetan.
- Zerbitzuaren bikaintasuna: kalitate goreneko zerbitzua ematea, eta herritarren esperientzia hobetzea bilatzea.
- Jasangarritasuna: uraren zikloa behar bezala kudeatzea, etorkizunean baliabideak babesten direla ziurtatzeko.

Dimentsio taktikoaren barruan, berrikuntza-ardatzak daude:

- Berrikuntza sistematizatzea
- Berrikuntza irekia
- Barne-eraginkortasuna
- Kultura eta pertsonak

Eta dimentsio operatiboan berrikuntza-ardatzak garatzen dituzten ekintzak daude.



Halaber, orain arte, plana bi alderdi nagusitan garatu da:

- Kudeaketa-sistema integratuko prozedurak idaztea
- Berrikuntza-ekintzak gauzatzea

Kudeaketa-sistema integratuko prozedurek eskuliburuko honako atal hauekin erlazionatuta egon behar dute:

1. Komunikazioa
2. Jabetza intelektual eta industrial, eta ezagutzaren kudeaketa
3. Lankidetzak
4. Zaintza teknologikoa / adimen lehiakorra
5. Informazio dokumentatua
6. Ideiak kudeatzeko metodologia
 - 6.1.1. Barne-ideien kudeaketa
 - 6.1.2. Kanpo-ideien kudeaketa
7. Berrikuntza-proiektuak garatzea
8. Berrikuntza kudeatzeko sistemaren eraginkortasuna eta hobekuntza ebaluatzea

Berrikuntza-ekintzek honako alor hauekin lotuta egon behar zuten, lehentasun handienetik txikienera ordenatuta:

1. Berrikuntzaren kultura:
 - 1.1. Komunikazio-kanpainak
 - 1.2. Sentsibilizazioa
 - 1.3. Prestakuntza
2. Barne-ekintzailak
3. Berrikuntzaren komunikazio-plan bat sortzea
4. Berrikuntza irekiko ereduak
5. Europako, estatuko eta eskualdeko laguntzak lortzeko laguntza.
6. Proiektuak arin kudeatzea.
7. Planaren helburuak lizitzatzeko laguntza.
8. Erosketa publiko berritzailea egiteko prozesuan laguntzea.
9. Berrizale taldeari laguntzea.

3. EGIN BEHAR DIREN LANEN DESKRIBAPENA

Agiri hau 3 sortatan banatzen da:

1. sorta: Berrikuntza kudeatzeko sistema eta berrikuntza-plana garatzea eta eguneratzea
2. sorta: Zaintza teknologikoa
3. sorta: Berrikuntzaren kultura sustatzea



3.1. 1. SORTA: BERRIKUNTZA KUDEATZEKO SISTEMA ETA BERRIKUNTZA-PLANA GARATZEA ETA EGUNERATZEA

Sorta horren helburua Partzuergoaren berrikuntza kudeatzeko sistema eta 2030erako Berrikuntza Plana garatzea eta eguneratzea da.

3.1.1. BERRIKUNTZA KUDEATZEKO SISTEMA GARATZEA ETA EGUNERATZEA

Partzuergoak Berrikuntza Kudeatzeko Sistema bat du (aurrerantzean, BKS), UNE 166.002-2021 arauan oinarritua. Sistema horrek honako dokumentazio hau barne hartzen du:

- Berrikuntza kudeatzeko sistemaren eskuliburua
- Berrikuntza-ideiak hautatzeko prozedura espezifikoa
- Berrikuntza-proiektuen segimendua egiteko berariazko prozedura
- Berrikuntzaren kudeaketa-sistema neurtzeko, aztertzeko eta hobetzeko prozedura espezifikoa
- Beste erakunde batzuekin lankidetzan I+G+Bko proiektuak kudeatzeko lan-prozedura normalizatua
- UPV/EHUrekin I+G+Bko proiektuak kudeatzeko lan-prozedura normalizatua

Kontratu hau garatzen den bitartean, laguntza behar da BKSarekin lotutako ekintza hauek egiteko:

- Eskuliburua eta prozedurak eguneratzea, behar izanez gero
- BKSa garatuko duten prozedura berriak idaztea, 2. puntuan deskribatutakoekin lotuta.
- Urteko barne-ikuskapena prestatzea. Aldizkako bilerak egingo dira hilero, dokumentazioaren segimendua egiteko eta dokumentazioa prestatzeko.
- Urteko barne-ikuskapena egitea. Kontratuan parte hartzen ez duten adjudikaziodunaren langileek egingo dute. Ikuskapena ISO 166.005-2021 arauaren arabera egingo da, eta, nahi izanez gero, ISO 56002 arauaren arabera.

3.1.2. BERRIKUNTZA-PLANA GARATZEA ETA EGUNERATZEA

Dokumentu honekin batera doan 2030erako Berrikuntza Plana urtero eguneratu beharko da. Eguneratze horretarako, honako hauek lagungarriak izango dira:

- Ikuskapena prestatzean, planari eragiten dioten zenbait atal daude, hala nola plangintza, prozesu operatiboak eta beste.
- Plana berrikusteko tailerrak Berrikuntza Batzordearekin.
- Plana berrikusteko bilera espezifikoak adjudikaziodunarekin.

Informazio horrekin, adjudikaziodunak plana urtero eguneratuko du.

Horrez gain, Partzuergoak emandako informazioan oinarrituta, urteko memoria bat eskatuko da, besteak beste, honako hauek jasota:

- Egindako berrikuntza-jarduerak
- Aginte-koadroa, berrikuntza-adierazleekin
- Ikuskapenaren laburpena
- BKSko prozeduren zerrenda
- Planeko aldaketa nagusiak

3.2. 2. SORTA: ZAINZA TEKNOLOGIKOA

Kontratatu nahi den zaintza teknologikoko zerbitzuaren helburua zera da: informazio garrantzitsua biltzea hiriko uraren ziklo integrala kudeatzen duen erakunde bati aplikatu dakizkiokeen eta garatzen ari diren aurrerapen teknologikoei dagokienez, ebaluatzeko zer ahalmen duten erakundearen prozesuetan txertatzeko.

3.2.1. IRISMENA

Lanen barruan, honako dokumentu hauek egin behar dira: Agiri bakoitzaren unitateak berariazko administrazio-klausula partikularren agirian (aurrerantzean, AKPA) deskribatuko dira:

1. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren radar bulletina
2. Teknologien analisiaren oinarritzko txostena
3. Teknologien analisiaren txosten aurreratua
4. Txosten monografikoa

3.2.2. INFORMAZIO-ITURRIAK

Zaintza teknologikoak era guztietako dokumentazio baliagarria hartzen du barnean, hain zuzen ere hiri-uraren ziklo integrala kudeatzen duen enpresa bati aplikatu dakizkiokeen enpresa-berrikuntzako estrategiei buruzko azterketa eta gogoeta egiteko dokumentazio baliagarria. Informazio horretan, orientabide gisa eta ez zehatz-mehatz, honako hauetatik ateratzen den guztia sartzen da:

- Azokak, ekitaldiak, jardunaldiak, biltzarrak eta abar.
- Lehiakideei buruzko informazioa: sektorekoa, soziala, ingurumenekoa eta abar.
- Partzuergoaren jardura-sektoreari buruzko berriak.
- Jardura sektoreari buruzko iritzia: adituak, erabiltzaileak, bezeroak, langileak eta abar.
- Argitalpen interesgarriak: araudiak, patenteak, aldizkari zientifikoak, bulletinak eta abar.

3.2.3. JAKINTZA-ARLOAK

«Jakintza arloak» kontratuaren hasieran finkatzen dira eta aldizka eguneratuko dira. Adjudikaziodunaren eta Partzuergoaren artean eguneratuko dituzte. Lizitazioaren egunean, jakintza-arlo edo zaintza-faktore kritiko hauek daude:

1. Arazketa eta ekonomia zirkularra: tratamendu berriak; prozesu-kontrola; kutsadura-kargaren iragarpena; mantenugaien, mikroplastikoen eta sortzen ari diren kutsatzaileen ezabaketa eta berreskuratzea; ur birsortuaren desinfekzioa; lohien tratamendua eta balorizazioa; lohien errausketa; beroa berreskuratzea; hondakinen balorizazioa; ikatz aktiboaren birsorkuntza; emisioen kontrola eta murrizketa.
2. Energia: energia-efizientzia, sorkuntza berriztagarria, biltegitratzea, biogasa, hidrogenoa, bioerregaiak, energia-autosufizientzia, etab.
3. Ingurumen-jasangarritasuna: sargaiak murriztea; hondakinak murriztea eta tratatzea; emisioak murriztea; akuiferoak kargatzea; biosolidoak; soinu-/argi-/usain-kutsadura; ibilguak babestea; paper-zapiak; paisaia-integrazioa; eraikuntza-material jasagarriak.
4. Edateko uraren ekoizpena eta tratamendua: tratamendu berriak; ingurune iragazle berriak; urtegietako algak; urtegietarako ekarpenak murriztea; kalitate-kontrola; ur gordina hobetzea;



emariak banatzea; edateko uren araztegiak lohiak kudeatzea; sortzen ari diren kutsatzaileak neurtzea eta ezabatzea.

5. Sare eta azpiegitura hidraulikoak: eraikuntza-sistemak, material berriak, berrikuntza eta birgaitzea, zangarik gabeko teknologiak, mantentze-lan prediktiboa, narriadura-kontrola, biofilma, ihesak, komunikazioa estaldurarik gabeko galerietan, monitorizazioa eta teleagintea, zuntz optikoa sareetan, kudeaketa dinamikoa, isurketak eurite-garaian, uraren kalitatea denbora errealean, martxan dauden hodian garbiketa, kloro-balioen eta desinfekzio-azpiproduktuen iragarpena banaketa-sareetan, eroanbideak erabilera-kondizioetan ikuskatzea, eta saneamendu-sareetako emariak eta kutsadura neurtzea.
6. Monitorizazioa eta kontrola: uraren kalitatea, IoT sentoreak, hodi metalikoetako korrosioa, iruzurra detektatzea, urruneko sentoreak, 4.0 industria, telekomunikazio-sareen erreduzantzia.
7. Eraldaketa digitala eta teknologia berriak: BIM, biki digitala, datuen analitika aurreratua, IA/Deep Learning, Big Data, zibersegurtasuna, azpiegitura eta cloud ingurunea, robotika, errealtate birtuala/areagotua, droneak, satelite bidezko irudiak, IoT, Smart Metering, etab.
8. Bezeroak: jakinarazpenak denbora errealean, teleirakurketa, tarifa pertsonalizatua, bezeroentzako aplikazioak, bezeroarentzako zerbitzuen pertsonalizazioa, oharrak, bezeroaren esperientzia, kanpaina pertsonalizatuak, erreklamazioak, gorabeherak, bulego birtuala.

3.2.4. ALDIAN BEHINGO BILERAK

Partzuergoa eta adjudikazioduna hilean behin bilduko dira, bi helburu nagusirekin:

- Kontratuaren segimendua egitea
- Esleipendunaren teknologia-proposamena Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren radar buletinerako

Adjudikaziodunak «jakintza-arlo»etan aurkitutako teknologiak proposatuko ditu. Bilera horietan, Partzuergoak interesa aztertuko du, eta aurreko teknologien ehuneko bat aukeratuko da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren radar buletinean sartzeko.

Orientabide gisa, eta ez zehatz-mehatz, teknologia bakoitzari buruz eman beharreko informazioak honako hauek hartuko ditu barne:

1. Deskribapena
2. Litezkeen aplikazioak
3. Teknologiaren garapen- edo heldutasun-maila
4. Partzuergoarentzat izan daitezkeen onurak identifikatzea
5. Mugak edo oztopoak identifikatzea, ezarri gero

Bilera horietan erabiliko dituen metodologia eta dinamika, aurkezpen-formatuak eta txostenen, dokumentazioaren edo entregagaien oinarritzko edukia jasoko ditu lizitatzailerak bere proposamenean.

3.2.5. BBPU-AREN RADAR BULETINA

Hiru hilabete behin, gutxi gorabehera, adjudikaziodunak aldizkako bileretan identifikatu eta onartutako 3-5 teknologia biltzen dituen dokumentu bat aurkeztuko du. Dokumentu hori Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren radar bulletina izango da, eta, horren bidez, berrikuntzaren kultura sustatu nahi du Partzuergoak, intranetean zabalduz. Dokumentu horrek itxura erakargarria eta zehatza izango du.

Lizitatzailleak BBPU-aren radar bulletinaren formatua jasoko du proposamenean.

3.2.6. TEKNOLOGIEN ANALISIAREN OINARRIZKO TXOSTENA

Jakintza-arlo jakin bateko edo arlo bateko alderdi zehatz bateko teknologien azterketa izango da txosten hori. Aztertu beharreko alderdia Partzuergoko sail batek aukeratuko du, edo adjudikaziodunak BBPU-aren radar bulletinerako aldian behin egiten duen teknologia-analisiaren bidez hautatuko da.

Adjudikaziodunak txosten hori egingo du, .ppt formatuan, 10 orrialde edo izango ditu, eta erlazonatutako 5 teknologia inguru aztertuko dira. Txostenean, besteak beste, honako puntu hauek agertuko dira:

1. Aurrekariak. Premiaren deskribapena
2. Teknologiaren analisia, honako hauekin:
 - Teknologiaren deskribapena
 - Zehaztapen teknikoak
 - Aplikazio errealak edo erreferentziak
 - Alderdi ekonomikoak
 - TRL
3. Teknologien laburpen-taula
4. Ondorioak

Puntu horietako bakoitza zehazteko erabilitako metodologia eta irizpideak jasoko ditu lizitatzailleak bere proposamenean, bai eta txostenaren proposamen alternatibo eta hobetu bat ere.

3.2.7. TEKNOLOGIEN ANALISIARI BURUZKO TXOSTEN ZEHATZA

Jakintza-arlo jakin bateko edo arlo bateko alderdi zehatz bateko teknologien azterketa izango da txosten hori. Aztertu beharreko alderdia Partzuergoko sail batek aukeratuko du, edo adjudikaziodunak BBPU-aren radar bulletinarentzat egiten duen aldizkako teknologia-analisiaren bidez aukeratuko da.

Adjudikaziodunak txosten hori egingo du, Word formatuan, 20 orrialde inguruko luzerarekin, eta erlazonatutako 10 teknologia inguru aztertuko ditu. Txostenean, besteak beste, honako puntu hauek agertuko dira:

1. Aurrekariak.
2. Premiaren deskribapena
3. Teknologiaren analisia, honako hauekin:
 - Teknologiaren deskribapena
 - Zehaztapen teknikoak
 - Aplikazio errealak edo erreferentziak
 - Alderdi ekonomikoak
 - TRL
4. Teknologien laburpen-taula
5. Ondorioak

6. Hurrengo urratsak

Puntu horietako bakoitza zehazteko erabilitako metodologia eta irizpideak jasoko ditu lizitatzailerak bere proposamenean, bai eta txostenaren proposamen alternatibo eta hobetu bat ere.

3.2.8. TXOSTEN MONOGRAFIKOAK

Zaintza teknologikoko zerbitzuak eskatzen duen beste jarduera bat txosten monografikoak egitea da, Partzuergoko arloren batek eskatuta. Plana abiarazi aurretik, koordinazio-bilera bat egingo da arlo eskatzailearekin, ikuspegia eta irismena aztertzeko, eta ondo ulertu behar da txosten bakoitzarekin zer premia bete behar den.

Nolanahi ere, adjudikaziodunak Partzuergoarentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak proposatuko ditu, irismenarekin eta ikuspegiarekin, onar ditzan. Zaintza teknologikoa koordinatzeaz arduratzen den Partzuergoko taldeak ere zuzenean proposatuko dizkio esleipendunari bere interesekoak iruditzen zaizkion gaiak.

Txostena Word formatuan egingo da, eta 30 eta 50 orrialde arteko luzera izango du. Hona hemen, adibide gisa, berrikuntzari loturiko gai bati buruzko txosten tematiko edo monografikoen edukia eta irismena:

- Sarrera: Hautatutako gaiaren aurrekariak eta egungo testuingurua. Azaldu beharko da gai hau zergatik den berritzailea, eta azken urteetan izan duen garapenaren eta bilakaeraren zifrak azaldu beharko dira, irismen globalarekin.
- Arrakasta-kasuak: Azken urteetako erabilera-kasu nabarmenenak deskribatuko dira, egindako azken proba eta ezarpenen berri emateko.
- Uraren sektoreko aplikazio nagusiak: Aukeratutako gaiaren azterketa, uraren zikloaren sektorean izan duen garapena ardatz hartuta.
- Etorkizunera begirako joerak: Etorkizuneko garapen-aukerak aztertzea.
- Informazio osagarri interesgarria: erreferentziazko dokumentazioa, atari espezializatuak, parte hartzen duten erakunde nagusiak, ekitaldiak eta abar.

Txosten monografikoetan garatu beharreko gutxieneko edukien aurkibidea proposatuko du lizitatzailerak bere eskaintza teknikoan.

3.3. 3. SORTA: BERRIKUNTZAREN KULTURA SUSTATZEA

Berrikuntza planaren barruan kultura eta pertsonen dagokien ardatza nabarmentzen da. Plana idatzi zenetik, hainbat jarduera egin dira erakundeko pertsonen artean berrikuntza-kultura sustatzeko.

Jarduera eraginkorrenetako bat erakundeko pertsonekin berrikuntza-tailerrak egitea izan da, helburu jakin batzuekin; adibidez, barne-eraginkortasuna hobetzea, baina, aldi berean, berrikuntza-kultura sustatzeko eta parte-hartzaileak prestatzeko moduan.

Sorta honen helburua berrikuntza-kultura sustatzea da, zenbait tailer eginez.

3.3.1. IRISMENA

Lanen barruan, honako sormen-tailer hauek egingo dira. Tailer horien orde, antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuk egin ahal izango dira. Lan bakoitzeko unitateak administrazio-klausula partikularren agirian (aurrerantzean, AKPA) deskribatuko dira:

1. Berrizale talde-tailerra
2. Barne-eraginkortasuneko tailerra
3. Tailerra Berrikuntza-batzordearekin

Tailerrek 3 ordu inguru iraungo dute eta, horietan, adjudikaziodunak hainbat dinamika egingo ditu sormena eta parte-hartzea sustatzeko. Tailerrek 3 fase izango dituzte:

1. Tailerra prestatzea. Partzuergoak eta adjudikaziodunak bilerak egingo dituzte, puntuak zehazteko. Adjudikaziodunak tailerrera erabiliko duen aurkezpenean jasoko ditu puntu guztiak. Horrez gain, tailerra zabaltzeko materiala prestatuko du.
 - Tailerraren helburua
 - Parte-hartzaileak
 - Lan-metodologia
 - Dinamikak
 - Emaitzak
2. Tailerra gauzatzea. Adjudikaziodunak tailerra dinamizatuko du adostutako aurkezpenaren arabera eta behar den materiala ekarritik.
3. Tailerraren ondorioak. Esleipendunak bileraren akta egingo du eta dagokion TEAMS kanalerara igoko du. Horrez gain, aurkezpen laburpen bat prestatuko du parte-hartzaileei bidaltzeko.

3.3.1. BERRIZALE TALDE-TAILERRA

Berrikuntza-kultura sustatzearen barruan dago Berrizale taldea sortzea. Taldea 2 urtean behin berritzen da, eta erakundean berrikuntza sustatzea du helburu. Horretarako, erakundeko 10 pertsonako talde honek borondatez lan egiten du irtenbide berritzaileetan sortzen diren proiektu eta erronketan.

2022ko maiatzean, Berrizale taldea osatzeko lehen deialdia zabaldu zen. Partzuergoak 2030eko Berrikuntza Planaren esparruan garatutako ekimenen parte gisa sortu zen, berrikuntzaren arloko kolaboratzaile-talde bat finkatzeko, eta, hala, harreman onak, ideiak eta berrikuntza-proiektuak sortzeko gai izateko. 2 urteko epea bete ondoren, beste deialdi bat egin da.



Deialdi berri honetan, ibilbide-orri berri bat diseinatu da, eta, horretan, 4 prestakuntza-saio eta 4 sormen-tailer egitea jasotzen da, Partzuergoaren premia espezifikokoak identifikatzeko, berrikuntza-proiektuak lehenesteko eta uraren sektorean berrikuntza-erronkak zehazteko, aipatu erronkei heltzeko.

Uraren sektorean ideiak sortzeko eta berrikuntza-erronkak identifikatzeko, adjudikaziodunaren laguntza behar da sorkuntza-tailerrak egiteko. Hori dela eta, honako lan hauek egin behar dira:

- Kontratuaren hasierako ibilbide-orria berrikustea.
- Egutegian zehaztutako 4 tailerrak ematea, erabiliko den materiala, horietako bakoitzaren helburuak eta egin beharreko lanak zehaztuz.

3.3.2. BARNE-ERAGINKORTASUNeko TAILERRA

Berrikuntza-ardatzen barruan, barne-eraginkortasuna oso garrantzitsua da. Hori dela eta, Partzuergoak aldizka barne-eraginkortasuneko tailerrak egiten ditu, honako helburu hauekin:

- Berrikuntza-proiektuen etengabeko fluxua sortzea, ideiak sortuz eta arazoak identifikatuz
- Sormen-tresnei buruzko ezagutzak transferitzea eta langileak berrikuntzan gaitzea, barne-prozesuak optimizatzeko

Tailer horiek sailetako langileekin egiten dira, eta 10 bat lagunek hartzen dute parte.

Adjudikazioduna izango da tailer horiek garatzeko arduraduna, irismenean deskribatutakoaren arabera.

3.3.3. TAILERRA BERRIKUNTZA-BATZORDEAREKIN

Berrikuntza-batzordea Partzuergoko berrikuntza zuzentzen duen organoa da. Honako hauek osatzen dute: Gerentziak, 5 zuzendaritzek, laborategiko zuzendariordetzak, ITBko zuzendariordetzak, Presidentetza-Gerentziari Laguntzeko Kabinetearen Arloak eta Berrikuntza Unitateak. Urtean lau aldiz biltzen da ohiko bilkuretan.

Honako hauek dira **Berrikuntza-batzordearen** funtzioak:

- Partzuergoaren berrikuntza-politika eta, bereziki, BKS hau betetzen dela zaintzea.
- Berrikuntzaren plangintza onartzea.
- Partzuergoan kultura berritzailea sustatzeko ekimenak sustatzea eta laguntzea.
- Berrikuntza Unitatearen lana gainbegiratzea eta babestea.
- Berrikuntza-proiektuak hautatzea eta lehenestea.
- Berrikuntza-proiektuak babestea eta baliabidez hornitzea.
- Berrikuntza-jardueren jarraipena egitea.

Berrikuntza-batzordeko kideekin egingo diren tailerretan askotariko gaiak jorratuko dira. Jarraian, bi azaltzen dira, adibide gisa:

- Berrikuntza-plana, xedea, helburuak eta abar berrikustea.
- Berrikuntza-ekosistemak behar izan ditzakeen Partzuergoaren etorkizuneko erronkak definitzea.

Adjudikazioduna izango da tailer horiek garatzeko arduraduna, irismenean deskribatutakoaren arabera.



4. DOKUMENTAZIOAREN KUDEAKETA

Sortutako dokumentazio guztia Partzuergoaren Teams eta Sharepoint aplikazioetara igoko da. Horretarako, Partzuergoak kanal pribatu bat sortuko du TEAMS aplikazioan sorta bakoitzerako, eta esleipendunak sortzen den dokumentazioa igoko du.

5. SEGIMENDU-BILERAK

Sorta bakoitzean zehaztutako segimendu bilerak egingo dira. Adjudikaziodunak bilera bakoitzaren akta idatziko du Partzuergoak sortutako kanal pribatuaren TEAMS aplikazioan, bileraren biharamunean.

6. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNEN LANGILEAK

1. sorta: Gutxienez 7 urteko esperientzia duen aholkulari senior batek eta gutxienez 3 urteko esperientzia duen aholkulari erdiseñior batek egin beharko dituzte lanak; esperientzia, bien kasuan, erakunde edo enpresa publikoen edo funtsezko zerbitzueta enpresa publiko edo pribatuen (ura, gasa edo elektrizitatea) sektoreko berrikuntza-planetan.

2. sorta: Erakunde edo enpresa publikoen edo enpresa publiko edo pribatuen sektorean zaintza teknologikoan gutxienez 7 urteko esperientzia duen aholkulari senior batek egin beharko ditu lanak, bi kasuetan uraren hiri-zikloarekin lotuta.

3. sorta: Gutxienez 7 urteko esperientzia duen aholkulari senior batek egin beharko ditu lanak, erakunde edo enpresa publikoen edo funtsezko zerbitzueta enpresa publiko edo pribatuen (ura, gasa edo elektrizitatea) sektoreko sormen-tailerretan.

7. ESKAINTZA TEKNIKOEN EDUKIA

LOTE bakoitzaren dokumentazio teknikoaren edukia gehienez 30 orrira mugatu beharko da (DIN A-4), eta gehieneko karaktere-tamaina ez da Microsoft Worden 11 calibri light kalibrea baino txikiagoa izango. Alboetako gutxieneko marjinak 2 cm-koak eta 2,5 cm-tik gorakoak/beherakoak izango dira, eta lerroartea, berriz, 1,1 cm-koa izango da gutxienez.

Irizpide horiek tauletan, grafikoetan eta testu-paragrafoak ez diren gainerako elementuetan ere aplikatuko dira. Langileen kualifikazioei dagokienez, dokumentazio teknikoan laburpen-etaurak aurkeztu beharko dira, baloraziorako baliagarriak diren datu aipagarrienekin.

Irizpide horiek betetzen ez dituzten edo orrialde-kopurua gainditzen duten agiriak ez dira baloratuko.

Aurkeztu beharreko dokumentazio teknikoa honako hau izango da:

1. Lanen memoria teknikoa eta programazioa.
2. Kontratuaren esku jarritako baliabide teknikoak, honako hauek barne: proposatutako talde teknikoaren osaera eta antolaketa, kontratuari esleitutako langileen lanbide-kualifikazioa, prestakuntza, esperientzia.
3. Garatu beharreko ekintzen xehetasunak. Ekintza bakoitzerako fitxa bat sortu beharko da, honako informazio hau jasoko duena:
 - Helburua
 - Garapena
 - Adierazleak eta espero den hobekuntza (kpi-ak, ahal dela, adierazle bakarra egongo da fitxako).



- Gauzatzeko epea
- Baliabideak, esleitutako pertsonak zehaztuta
- Dedikazioa (orduak)

8. ERANSKINAK

1. eranskina. 2030erako berrikuntza-plana. 2023ko abenduko bertsioa
2. eranskina. Berrikuntza kudeatzeko sistemaren eskuliburua. 02. ber.

Bilbon, 2024ko urriaren 2ean

Ontzat emana

Santos Paunero Herrero
Kontratuaren arduraduna

Fernando Ortega Conde
Iraunkortasun, Teknologia eta
Berrikuntzaren Zuzendariordea